



Ingurumen Estrategiaren
Agiria Saila 46.zk. 2005ko Apirila


ingurumena.net

Zure esku dago



Beira-, Zeramika- eta Kare-sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumen-ekarpena

2005-2006



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

Euskal Autonomia Erkidegoko Beira, Zeramika eta Karearen Borondatezko Ingurumen Akordioa sinatu dutenen iritzia da



“Garapen Iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia 2002-2020 oso garrantzitsua izan da euskal ingurumen-politikan”

Sabin Intxaurre
Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua

Esparru geografiko eta administratibo guztietan onartzen da legeria tradizionala ez dela nahikoa eta ez dela nahikoa izan bere kabuz ingurumenaren arazoak konpontzeko. Errealitate hori kontuan hartuz, Administrazioarentzat ez du inolako zentzurik jardura ekonomikoak eta ingurumenaren babesa bereizten jarraitzeak.

Administrazioek sormen handiagoa eduki behar dute eta merkatutik ikasi behar dute; horrez gain, ingurumenari loturiko helburu handizaleagoak edukitzea ahalbidetzen duten tresnak aplikatu behar dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-tradizioak presio eta eragin handiak sorrarazi ditu natur baliabideetan, baina gure herriak ahalmen teknologiko, ekonomiko eta berritzaile handia edukitzea ere ahalbidetu du.

90eko hamarkadatik gaurdaino, euskal industria aldatu egin da. Ingurunearekiko lehen baino askoz ere ardura handiagoa duen sektorea dela erakutsi du. 2001ko Ingurumenaren Diagnostikoaren arabera, industriaren sektoreak eman ditu aurrerapauso handienak ekoeraginkortasunean eta autoerregulaziozko neurrien ezarpenean (kalitateko, ingurumenaren kudeaketako eta laneko osasuneko estandarrak eta arauak).

Gainera, euskal industria aitzindaria da berrikuntzaren kulturen eta jakintza zientifikoa maila guztietan sustatzen. Horrez gain, eraginkortasunez moldatzen da fenomeno berrietara, esate baterako, globalizaziora, informazio-teknologiaren garapenera eta lehiakortasuneko eta ikerketa eta garapeneko ikuspegi berrietara.

Euskal industriaren sektoreak esparru egonkorra eta ez-loteslea eskatzen du, etorkizuneko lege-garapenei aurrea hartzeko aukera ematen diona, guztia etengabe berrikusi eta hobetzeko prozesu malgu eta adostuaren bidez epe ertainean planifikatuz.

Ilde horretatik, 2002ko ekainaren 4an “Garapen Iraunkorrerako Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia 2002-2020” onestea funtsezko urratsa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politikan. Estrategia hori ezartzearen ondorioz, zerikusia duen eragile sozioekonomiko bakoitzak egin beharreko jarduerak hedatu egingo dira, eta tresna desberdinak erabiliko dira, ingurumen-estrategia horretan jasotzen diren helburu eta konpromisoak bete ahal izateko.

Helburu horiek betetzeko abian jarri den prozesua eragile guztiek erantzukizuna bere gain hartuz egin behar da, ingurumen-erantzukizuna guztien arteko kultura dela ulertuz. Kultura berri hori, besteak beste, Administrazioaren eta euskal sektore industrialen arteko Borondatezko Akordioaren bitartez gauzatzea nahi dugu.

Borondatezko Akordioek, beraz, jarduteko esparru gardena ezartzen dute eta, horrez gain, Administrazioei politika eta tresna legegile eta ekonomikoak bizkor eta modu errentagarrian ezartzeko aukera ematen die. Borondatezko Akordioek etekin kualitatibo garbiak ekar ditzakete, esate baterako, elkarriketarako eta lankidetzarako esparru egonkorra ezartzea enpresa eta administrazioaren artean, informazioa askoz ere gehiago partekatzea, enpresen sentikortasuna handitzea eta haien ingurumenaren kudeaketa hobetzea.

Beira, Zeramika eta Karearen Sektoreen iritziak

■ Beira

“Industria-jarduera arrakastaz gara daiteke...
naturarekiko oreka sozial zintzoari eutsiz”

Zaila da industria-sektorean arrakasta lortzea. Zaila da etorkizuna ezagutzea, eratzea, haztea, berritzea, aberastasuna sortzea, aitzindari izatea. Hori zaila da, baina are zailagoa da –eta horrexegatik goresgarria– teknologiaren eta gizakien beharren gogobetetzearen arteko oreka-rekin bat etorri lortzea; alegia, hazkundearen eta naturarekiko errespetuaren arteko oreka lortuz.

Ez dugu onartu behar “Gizona, gizonarentzat otso” esaera zaharra “*Industria, naturarentzat otso*” esaerarekin ordezkatzeari. Guardian eta Vidrala enpresetan, industria-jarduera giza garapenaren eragile gisa sustatzen dugu, baina aldi berean, industria-jarduera arrakastaz gara daitekeela sinesten dugu, konpromiso onargarriko irtenbideetan oinarrituta, ingurunea eta naturarekiko oreka sozial zintzoari eutsita, eta negozioen munduari etika aplikatuta.

Printzipioen adierazpen horretan, jatorri (Vidrieras de Llodio), ezarpen (Laudio) eta material (beira) berdinen bidez lotutako bi enpresok, Borondatezko Ingurumen Hitzarmena adostu dugu, Garapen Iraunkorrekiko dugun konpromisoa eta “2002-2020ko Garapen Iraunkorren Euskal Ingurumen Estrategiatik” eratorritako Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika bat etor daitezen.

Material noble baten aplikazioak ordezkatzeko ditugu, zehazki, beirarenak. Beiraren ezaugarri nagusietako bat gardentasuna da, eta hain zuzen, gardentasun hori gizartearekiko eta ingurumenarekiko kudeaketan aplikatu nahi dugu, eta Hitzarmen hau horretarako tresna egokia eta aproposa dela iruditzen zaigu. Badugu, beraz, pozik egoteko arrazoirik.



Jesús Ceberio. Guardian Llodio Uno, S.L.ko zuzendari nagusia
Javier Gutiérrez. Vidrala S.A.ko zuzendari nagusia

Hitzarmena sinatu duten enpresak



AMR Refractarios, S.A.



Calera de Alzo, S.L.



Caleras Guipuzcoanas, S.A.



Cerámica Marlo, S.A.



DEGUISA, S.A.



GUARDIAN LLODIO UNO, S.L.



Refractarios BURCEÑA, S.L.



Refractarios KELSEN, S.A.



VIDRALA, S.A.

■ Zeramika

“Borondatezko Hitzarmena ingurumena hobetzeko helburu berrien eragilea eta katalizatzailea izango da”

Hurrengo urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko industriak aldaketa garrantzitsua biziko du ingurumenarekiko jarrerarenarloan. Aldaketa hori, batetik, araudi berriak eratorriko da –besteak beste, poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuen legea (IPPC) azpimarratu behar da–, eta bestetik, gizarte, administrazio, merkatu eta industria-sektoreen eskaera-maila handiagotik.



Testuinguru horretan, eta 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingu-
rumen Estrategiak proposatutako erronkaren aurrean, ezinbestekoa da eragile
inplikatuak arteko konpromisoa eta lankidetzaren egokitze-prozesua errazteko.

Illo hori jarraituz, zeramikaren sektoreko enpresak Borondatezko Hitzarme-
nari atxiki zaizkio Eusko Jaurlaritzarekin batera, hitzarmen hori, batetik, ingu-
rumen-hobekuntzarako helburuen eragile eta katalizatzailea, eta, bestetik, etor-
kizun garbiagoko eta ingurumena errespetatzen duen etorkizunerantz aurrera
egiteko tresna ezin hobea izango delakoan.

Hiroshi Yamamoto, AMR Refractarios, S.A.ko lehendakaria
M^a Luisa Martín, Cerámica Marlo, S.A.ko zuzendari nagusia
Juan José Apraiz, Deguisa, S.A.ko zuzendari nagusia
Alberto Santamaría, Refractarios Burceña, S.L.ko zuzendari nagusia
Juan Jesús Santa Cruz, Refractarios Kelsen, S.A.ko lehendakaria

■ Karea

CALCINOR Taldearen politika zehazten duten balioetako bat errespetua da; errespetua, pertsonetikiko, gure bezero eta hornitzaileekiko, bizi garen gizartearekiko, kokatuta gauden ingurunearekiko, eta ondorioz, ingurumenarekiko. Hori dela eta, Calera de Alzo, S.L.k eta Caleras Guipuzcoanasek Borondatezko Hitzarmena atseginez sinatzen dugu; orain dela urte batzuk ekindako bidea errazten duen Administrazioarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena da; gure jardueraren garapena ingurumenarekiko iraunkortasun-konpromisoarekin bateratzen duen hitzarmena.

Industria-jarduerako ingurumen-inpaktuen prebentzio- eta kontrol-sistema ezartzeak duen garrantzia aipatzen dute Europako IPPC 61/96/EE Zuzentarauak nahiz Eusko Jaurlaritzaren 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategiak, sistema horien bidez, garapen iraunkorra bultzatuko duten baldintzak sortzeko.

Hartutako konpromisoek alde guztien ahalegin gehigarria eskatzen duten arren, ziur gaude ahalegin hori erabat konpentsatuko dela, konpromiso horiek agertzen ari diren ingurumeneko araudi berrietara egokitzen laguntzeaz gain, haiek gainditzeko moduan +egoten lagunduko baitigute, eta horixe da gure asmoa.



Juan Jesús Santa Cruz,
Calera de Alzo, S.L.
eta Caleras Guipuzcoanas, S.A.
enpresetako lehendakaria

“Gure politika definitzen duen balioetako bat errespetua da; pertsonetikiko, gure bezero eta hornitzaileekiko, bizi garen gizartearekiko eta ingurumenarekiko errespetua”

Beira-, Zeramika- eta Kare- Sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoan



■ Beiraren sektorea

Beira ezinbesteko material bihurtu da gure gizartearentzat, eta hauek dira material noble horren ezaugarri nagusiak : erresistentzia, produktu-mota oro gordetzeko eta kontserbatzeko gaitasuna, isolamendu termiko-akustikorako gaitasuna, energia garbiak sortzeko elementu gisa erabiltzeko aukera, etab. Gainera, beiraren % 100 birzikla daiteke.

Produkzioaren zatirik handiena ontzietarako beirak (beira hutsa) eta beira lauak osatzen dute. Beira-mota horiek Vidrala, S.A. eta Guardian Llodio Uno, S.L. enpresek ordezkatzan dituzte hurrenez hurren.

Beira hutsaren azpisektoreak elikadura-sektorerara –edarien sektorerara batik bat– zuzendutako ontzietarako beira, botilak eta poteak fabrikatzen ditu . Beirak dituen ezaugarri fisiko-kimikoen ondorioz, ez da nahasten bere barruko produktuen propietateekin, eta horrek ontzirik unibertsalena bihurtzen du.

Beira lauak beira lau flotatuaren eta beira inprimatuaren produkzioa hartzen du bere baitan. Beira lau flotatuaren produkzioa automobilgintzarako eta arkitekturarako bideratzen da. Geroko tratamenduek energia-kontrolerako elementu eraginkor bihurtzen dute beira hori, bai eraikinetan, bai ibilgailuetan.

Beira inprimatuak arkitekturan eta segurtasun-sektoreetan oinarrituta eduki du merkatua historikoki, baina azken urteetan, produkzioa energia garbia sortzeko elementuetarantz birbideratzen ari da.

Bi sektoreetan, funtsezkoa da beira birziklatua erabiltzea lehengai gisa, material % 100 birziklagarriabaita. Izan ere, birziklatzeko ezinbesteko baldintzak betetzen ditu: lortzen den materiala osorik erabil daiteke, bere ezaugarriak erabat mantentzen ditu eta jatorrizko produktu bera fabrikatzeko erabil daiteke. Erabilera horren egungo muga sektoreak eskatzen dituen kalitate-eskakizunekin lortzeko zailtasuna da.

Hitzarmena sinatzen duten enpresen inplikazio historikoa energia-eraginkortasunaren hobekuntzan egindako ahalegin historikoek ziurtatzen dute. Hobekuntza horren bidez, erregaia berreskuratzeko eta optimizatzeko sistemak integratu dira, ingurumen-kontraindikazio txikiak dituzten erregaien alde egin da, eta beira birziklatua lehengai gisa erabiltzen da.

Baina hori guztia ez zaigu nahikoa iruditzen. Lanean ari gara erabilgarri dauden teknologia hobeak ezartzeko energia-eraginkortasun handiagoa eta emisioak, isuriak eta hondakinak murriztea lortzeko, bai eta horiek baloratzea edo balio handiagoa izatea lortzeko, u lanean ari gara, ur-kontsumoa murrizteko eta emisio-parametroak kontrolatzeko ere.





■ Zeramikaren sektorea

Zeramika-materialen fabrikazio-sektorea bost enpresa hauek ordezkatzen dute Borondatezko Hitzarmen honetan: produktu erregogorren lau fabrikatzailek (AMR Refractorios, S.A., Deguisa, S.A., Refractorios Burceña, S. L., Refractorios Kelsen, S.A.) eta eraikuntzarako materialen fabrikatzaile batek (Cerámica Marlo, S.A.).

Azken urteetan, sektoreak aurrerapen handia bizi izan du ingurumenarekiko jarrera dela eta. Hobekuntza adierazgarriak egin ditu hainbat alderditan, eta besteak beste, hauek azpimarra daitezke:

- Erregai fosil likido eta solidoen erabilera kentzea. Horiek gas naturalaren bidez ordeztu dira, eta hala, atmosferarako emisioen inpaktua murriztu da.
- Ingurumena errespetatzen duten gehigarri eta produktu berriak garatzea eta erabiltzea, eta material arriskutsuen erabilera kentzea edo murriztea, horiek emisio- eta hondakin-iturri baitira.
- Baztertze-materialak eta xurgatze-sistemen hautsak berreskuratzeko sistemak optimizatzea, hala, baliabide naturalen kontsumoa eta hondakinen sortzea murrizteko.

Hala, zeramikaren sektoreko enpresak egokituz joan dira Administrazioak, merkatuak eta gizarteak ingurumenaren arloan duen gero eta kezka handiagoa sortzen ari den eskakizun-agertoki berrien garaira. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan horren emaitza 2002-2020ko Garapen Iraunkorren Euskal Ingurumen Estrategia da.

Egoera horren aurrean, eta oraindik ere hobekuntza-ekintzak egiteke daudela kontuan hartuta, sektoreak optimismoz eta konpromiso-bokazio argiaz egiten die aurre ingurumen-erronkei.





■ Karearen sektorea

Kareak erabilera ugari ditu eta antzinatek erabili izan da. Haren fabrikazioa beroa emanez lortzen den kareharritzko harkaitzaren transformazio kimikoan oinarritzen da, eta erreakzio kimiko hori erabat naturala da.

Kareak aplikazio ugari ditu, eta horien artean aipagarriena burdingintzan produktu urgarri eta zepatzaile gisa erabiltzea da. Eraikuntzan, mortero eta igeltsuen fabrikazioan, errepidean eta obra publikoetan lurzoruak egonkortzeko erabiltzen da, hartara ez baitira materialak hondakindegietara eraman behar. Papergintzan soda kaustikoa birsortzeko eta berreskuratzeko eta zuritzaile gisa erabiltzen da karea.

Baina kareak ingurumen-aplikazioetan ditu erabilearik gehienak. Uren (hirikoak eta industriakoak), arazketa-lohien, emisioetatik eratorritako keen, hondakinen (hirikoak eta industriakoak) eta lurzoru poluituen tratamenduak karea behar du. Arlo horietan karea desulfuratzailerik, koagulatzaile, neutralizatzaile eta geldotzaile gisa aritzen da.

Halaber, azpiegitura publikoak eraikitzeke lurren hobekuntzan karea erabiltzeak materialak berriro erabiltzearekin lotutako ingurumen-hobekuntzak sortzen ditu zeharka, tratamendu-mota hori gabe aipatu materialak kendu eta hondakindegietara eraman beharko bailirateke, eta mailegutik eratorritako beste material batzuekin ordeztu. Materialak berriro erabiliz, eraikuntzak sor ditzakeen ingurumen-kalteak saihesten dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan bi kare-fabrikatzailea daude: Calera de Alzo, S.L., Altzon (Gipuzkoa) eta Caleras Guipuzcoanas, S.A. (CALGUISA), Arrasaten (Gipuzkoa). Bi enpresa horiek Calcinor Taldeko kideak dira. Instalazio horiek erabat automatizatuta daude, eta beren produkzio-instalazioak Europako Batasunean karearen fabrikazioan Erabil daitezkeen Teknika Onenentzat hartzen dira.

Bi enpresa horien lehentasunetako bat garapen iraunkorra bultzatuko duten kondizioak sortzea da, eta horrek gure jardueren ondoriozko kalteak prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema integratua aplikatzera eraman gaitu, baita produkzio-prozesu guztiak kudeatzera ere. Hori dela eta, Altzoko kare-fabrikak Kalitatea Kudeatzeko Sistema eta Ingurumena Kudeatzeko Sistema dauzka, ISO 9001 eta ISO 14001 arauen arabera hurrenez hurren, eta Calera Guipuzcoanas enpresa bi kudeaketa-sistema horiek ezartzeko prozesuan dago.

Politika bera aplikatzen da da bi enpresentzat, eta ingurunea eta ingurumena errespetatzeko konpromiso sendoa adierazten da. Horren adierazgarri dira azken urteetan egin diren inbertsioak; Calcinor Taldeak, esate baterako, fakturazioaren % 1 baino gehiago ingurumena babestera bideratu du.

Kareharria gure gizartearen ezinbesteko produktua denez, bi erakundeek ondotoxo dakite karea modu iraunkorrean fabrikatu behar dela, eta horretarako prebentzio- eta kontrol-neurriak hartu behar direla ingurumena babesteko.

Karearen sektoreari emisio poluitzaileen prebentzio eta kontrol integratuari buruzko IPPC/61/96/EE Zuzentarauak eragiten dio. Emisio gehienak kareharria deskarbonatzeko prozesuan sortzen dira eta, horren ondoren, errektuntza-prozesuan. Horregatik, borondatezko hitzarmenean zehaztutako helbururik garrantzitsuenetakoa Ingurumen Baimen Integratua lortzea da.



Beira-, Zeramika- eta Kare- Sektoreak
Euskal Autonomia Erkidegoan

Beira, Zeramika eta Kare Sektoreak ingurumenean duen eragina Euskal Autonomia Erkidegoan

2002ko Ingurumen Diagnostiko Sektorialak eta 2002ko emisio eta isurketen datuei buruzko lehenengo EPER txostenaren emaitzen azterketak –haren ondorioak akordioa lortzeko oinarri izan dira– adierazten dutenez, hauek dira **Beira-, Zeramika- eta Kare-sektoreen** ingurumen-presioak Euskal Autonomia Erkidegoan:


Beira	• Atmosferarako emisioak, batez ere nitrogeno-oxidoak, fusio-labeetako temperatura altuengatik. • Energiaren kontsumoa, prozesuaren energia guztiaren % 75 eragiten duen fusio-aldiarengatik.
Zeramika	• Hondakinen balorizazioa, sektore honen ezaugarria da ez duela ingurumen-eragin gehiegi sortzen, eta, gainera, beste sektore batzuetan sortutako kalteak murrizteko erabil daiteke (erabilitako material erregogorrrak, papergintzako lohiak, galdatze-harea berriro erabiltzea). Horrek lehengaien kontsumoan aurreztea eragiten du. • Ingurumen ziurtagiriak, sektore honetan, ingurumena hobetzeko ISO 14001 ziurtagiria ezartzeko aukera handia dago.
Karea	• Atmosferarako emisioak, batez ere CO₂ eta ekoizpen-prozesuaren eta erabilitako erregaiei ondorioz sortutako partikulak. • Uretarako isurketak, kokapenaren eta prozesuaren ondorioz egindakoak; isurketa-ur guztiak behar bezala tratatu beharko lirateke.

Adierazle horiek hobetzeko beharrezkoa da prozesuen eraginkortasuna optimizatze-ko ahalegin handia egitea, baita ingurumena gehiago zaintzen duten teknologia berrien garapena eta ezarpena ere, teknologia-berrikuntzako prozesu jarraituaren bidez. Izan ere, hori guztia oinarritzkoa da merkatu zorrotzetan sektorearen lehiakortasuna mantentzeko.

Sektoreko enpresek sinatutako akordioak agerian uzten du enpresa horiek lehentasunezko ingurumen-gaietan hobetzeko konpromisoa dutela, eta garapen iraunkorren alde egiten dutela.




Beira sektoreko produkzioaren eta ingurumen-inbertsioen bilakaera




Oharra: 2004an, 5.151.611 €-ko inbertsioa gehitu beharko litzateke, labe bat erabat konpondu baitzuten.

Zeramika sektoreko produkzioaren eta ingurumen-inbertsioen bilakaera



Karearen gaineko ingurumen-aplikazioak EAEn – 2004. urtea





Euskal Autonomia Erkidegoa garapen iraunkorrerantz: Garapen Iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia (2002-2020)

Euskal Autonomia Erkidegoan “garapen iraunkorra” kontzeptua arau-izaerarekin ingurumena babesteko lege orokorrean jaso zen lehenengo aldiz (otsailaren 27ko 3/1998 legean). Ordudanik, kontzeptu horrek adierazten dituen printzipioak lortzeko egin den aurrerapauso handiena “Garapen iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-estrategia (2002-2020)” sortzea izan da. Dokumentu horretan uskal Autonomia Erkidegoak epe luzean dituen ingurumen-helburuak jasotzen dira, bai eta “iraunkortasuna” delakoa lortzeko bete beharreko helburu, estrategia-ildo eta konpromisoak ere.

Garapen iraunkorra, iraunkortasuna. Termino hauekin honakoa adierazi nahi da: euskal gizarte osoak ingurumenerako eta gizarterako lortu behar dituen hainbat xede ezartzea, oraingo belaunaldiarentzat bizi-kalitate ezin hobea bermatu ahal izateko, etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe.

Helburu orokor hori betetzeko, ezinbestekoa da gizarteko eragile guztien laguntza: industriakoe-na, ekonomikoena, sozialena. Euskal industriaren baterako parte-hartze hori “Garapen iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-estrategia (2002-2020)” dokumentuan jasotako konpromiso batzuetan zehazten da, esate baterako, euskal administrazioak lehenik IPPC 96/61 artetzarauaren eraginpean dauden industria-sektoreekin borondatezko akordioak sinatzea eta, ondoren, baita gainerako industria-sektoreekin ere.

Borondatezko Ingurumen Hitzarmenak: Beira-, Zeramika- eta Kare-sektoreetako 9 enpresen sinadura elektronikoa

2005eko apirilaren 11n Bilbon egindako ekitaldi publikoan beira, zeramika eta karearen sektoreek borondatezko ingurumen-hitzarmena sinatu zuten. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan bederatzi industria-sektoretako 120 enpresek baino gehiagok (zementu-sektoreko, kimika-sektoreko, altzairu-sektoreko, ore-, paper- eta kartoi-sektoreko, hondakin arriskutsuak kudeatzeko sektoreko, eta burdin galdaketaren, ez burdinazko galdaketaren, eta ez burdinazko metalurgiaren enpresek) konpromisoa hartu dute beren prozesuak hobetzeko ingurumenari kalte gutxiago eginez, baita ingurumen-legeriaren aplikazio-epeei aurre hartzeko konpromisoa ere, legeak galdatutakotik aurrera eginda.

Borondatezko akordioek hiru helburu dituzte:

Lehenik eta behin, enpresa sinatzaileen emisio eta isurketak optimizatzea, hondakinak minimizatzea edota haien balorizazioa areagotzea; bigarrenez, Ekoscan arauaren irizpideei jarraituz, ISO 14001 edo EMAS ingurumen-kudeaketako sistemak ziurtatzea; eta, azkenik, Prebentzio eta Kontrol Integraturako Arteztarauaren (IPPC 96/61 Zuzentaraua) eta hura egokitzen duen 16/2002 Legean proposatutako helburuak lortzea.



Enpresa bakoitzak zuzenean sinatzen ditu borondatezko hitzarmenak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Ingurumen Sailarekin, eta horietan ezartzen dira erakunde bakoitzak lortu beharreko ingurumen-helburuak, hitzarmenaren segimendua egiteko adierazleak eta Administrazioaren beraren ordain-ematea. Segimenduko adierazleak hiru motakoak dira: banakakoak, sektorekoak eta lurraldekoak. Horri esker, helburuen lortze-maila ikuspegi desberdinetatik ebaluatu daiteke.

Akordio hauen gakoetako bat hauxe da: bai enpresek eta bai administrazioak legeriak eskatzen duena betetze hutsa baino haratago iristea nahi dutela. Horretarako, enpresak eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila elkarlanean hasi dira, eta bat etortzeko nahiz proposamenak trukatzeko giro aparta sortu da alde bientzat. Akordioak erreferentzia-esparru egonkorrak bihurtuko dira enpresentzat epe luzean.





Euskal Autonomia Erkidegoko Beira, Zeramika eta Karearen Sektorearen ingurumen-helburuak


Borondatezko Akordio honetarako hainbat helburu finkatu dira, bi aldeek sektorearen egoera aztertzeke egin duten diagnostiko xehatuaren ondorioz. Halaber, helburu horiek zehazteko “Garapen Iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia (2002-2020)” dokumentuak jasotzen dituen proposamenak ere aintzat hartu dira. Helburu bakoitza xehetasunez zehazten da, eta ezartzeko epeak eta betetzeko egin behar diren ekintzak azalduta daude.

Euskal Autonomia Erkidegoko Beira, Zeramika eta Karearen Sektorearen ingurumen-helburuak

HELBURUAK	SEKTOREA	ESANAHIA	ERABILGARRITASUNA
Emisio atmosferikoak zaintzea, kontrolatzea eta murriztea.	BEIRA KAREA	Isuritako poluitzaileen zaintza areagotzea eta poluitzaileak murrizteko neurriak ezartzea.	Airearen kalitatea hobetzea eta ingurumenean nahiz osasunean eragindako kalteak murriztea.
Baliabideen kontsumoa kontrolatzea eta murriztea.	BEIRA	Urtzeko labeen energia-eraginkortasuna hobetzea.	Natur baliabide –energia eta ura– gutxiago kontsumitzea.
	ZERAMIKA	Ur-kontsumoa murrizteko neurriak ezartzea. Prozesuen energia-errendimendua optimizatzea.	
Hondakin arriskutsu gutxiago sortzea.	BEIRA	Araztegiko lohi arriskutsuak murriztea.	Hondakinak isurtzea eta substantzia arriskutsuak gehiegi erabiltzea saihestea.
	ZERAMIKA	Lehengai arriskutsu gutxiago erabiltzea (mundrunak eta break).	
Hondakinen baliarazpena areagotzea, ezabaketaren ordeza.	ZERAMIKA	Material erregogorren hondakinak, galdaketa-hareak eta paper-fabrikako lohiak baliarazteko aukera aztertzea prozesuan lehengai gisa sartuta.	Hondakindegietara hondakin gutxiago botatzea, beste prozesu batzuetan aprobetxa daitezkeen material gisa erabiliz. Ondorioz, natur baliabide gutxiago kontsumituko dira.
	BEIRA	Beira gehiago birziklatzea. Barneko hondakinak eta beste prozesu batzuetakoak baliarazteko aukerak aztertzea.	
	KAREA	Sortzen diren hondakinak dekantazio-baltsan baliaraztea.	
Isuriaren karga poluitzailea murriztea.	KAREA	Isurketa-uren tratamenduak ezartzea.	Ibaien kalitatea hobetzea.
IPPCaren eskakizunak betetzeko modua erraztea eta prestatzea (BREF aplikatzeko gida teknikoa, Ingurumen Baimen Integratua) eta IPPC 2007. urtea baino lehen ezartzea.	BEIRA ZERAMIKA KAREA	Poluzioa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Lege Integratuak enpresei egiten dizkien eskakizunei aurrea hartzea.	Ingurumeneko legedi horretako eskakizunei aurrea hartzea.
Lurzorua kalitatea aztertzea.	BEIRA ZERAMIKA KAREA	Lurzorua eta inguru fisikoaren kalitateari buruzko atariko txostena egitea.	IJarduerak lurzoruan duen eragina ezagutzea eta kontrolatzea.
Nazioarteko ISO 14001 arauaren arabeko kudeaketa-sistema garatu eta ezartzea.	BEIRA ZERAMIKA KAREA	Enpresei ingurumenean duten eragina etengabe ezagutu, aurreikusi eta minimizatzeko aukera emango dien kudeaketa-sistema ezartzea eta kanpoko eragile batek egiaztatzea.	Erakundeen eraginak murriztea etengabeko hobekuntza-prozesuaren barruan.
Enpresaren eta udalaren arteko lankidetzak egonkorra eraikitzea.	BEIRA ZERAMIKA KAREA	Lankidetzak kanala eraikitzea ingurumen-gaietarako.	Komunikazioa hobetzea eta bi alderdiek ingurumen-arloan egindako ahalegina aintzatestea.

Beira, Zeramika eta Karearen Sektoreak “Garapen Jasangarriaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia 2002-2020” betetzeko emandako laguntza

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen-estrategia 2002-2020



Borondatezko hitzarmen honen funtsezko alderdietako bat da enpresa sinatzaileek eta Euskal Administrazioak osatutako Jarraipenerako Batzordeak aldizka hitzarmena ikuskatuko duela, egon daitezkeen arazoak antzemateko eta aukera berriak aprobetxatzeko helburuarekin. Horretarako, bi aldeek behar diren baliabide guztiak ezarriko dituzte elkarriketa ireki eta irmo baten esparruan.





Etorkizunari begira: Nolakoak izango diren Beira, Zeramika eta Kare Sektoreak 2006an?

- Borondatezko Hitzarmena sinatzen duten eta Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Legeak eragiten dieten instalazioek Ingurumen Baimen Integratua izango dute. Hala, Europako industria-instalazio handiei eskatzen zaizkien ingurumen-baldintza guztiak (hondakinak, isurketak, emisioak...) beteko dira.
- Hiru sektoreek ingurumen-kudeaketako sistema bat ezarri eta ziurtatu dute, ingurumenari buruzko jokabidea etengabe hobetzeko.
- Borondatezko Hitzarmena sinatu duten enpresa guztiek lankidetzarako bide egonkor bat sortu dute enpresa bera dagoen udalarekin. Horren bidez, ingurumen-gaietan egindako ahaleginak partekatu eta ezagutuko dituzte.
- Beira- eta kare-sektoreek atmosferarako emisioen zaintza indartuko dute, eta haiek murrizteko ahaleginak egingo dituzte.
- Beira- eta zeramika-sektoreek energia- eta ur-baliabideak optimizatuko dituzte, eta hondakin arriskutsu gutxiago sortuko dituzte.
- Hiru sektoreek hondakin ez-arriskutsuen balorizazioa sustatuko dute, eta gaur egun hondakindegietan botatzen diren hondakinen (beira eta karea) kopurua murriztuko dute; horretarako, beste jarduera batzuetan lehengai gisa balorizatuko dituzte (zeramika).



Helbide ingeresgarriak

- | | | | |
|---|--|--|--|
| ● http://www.ingurumena.net | ● www.ecosmep.com/ | ● www.vidrala.com | ● www.gaztenet.com/refractarios |
| ● http://www.ihobe.net | ● www.citma.net | ● www.anfevi.com | ● www.cerabrick.com |
| ● http://www.nrg4sd.net | ● www.inem.org/ | ● www.feve.org | ● www.deguisa.com |
| ● http://www.eea.eu.int/ | ● www.epa.gov | ● www.isrcer.org | ● www.hispalyt.es |
| ● http://europa.eu.int/comm/environment/ipp/ | ● www.guardian.com.es | ● www.cpierglass.be | ● www.anfre.com |
| ● www.eper-euskadi.net | ● www.guardianexpress.es | ● www.secv.es | ● www.calcinor.com |
| ● www.aec.es/ | ● www.guardian.com | ● www.adegi.es/amr | ● www.ancade.es |

Secretaría Técnica de Acuerdos Voluntarios